

Sanjuanak, erasorik gabeko jaiak

Andoaingo Udalak jaien balorazioa egin du. Aurtengo Santakruzak eta Sanjuanak eraso sexistarik gabeko jaiak izan dira / 7

Etxeberrietako etxe zaharrak, Otietako egitasmoa eta N1 errepidea hizpide Andoaingo plenoan / 6

Kaletxikiko jaiak garai batean bezala ospatu dituzte: ekitaldi askorekin eta umore onez / 8-9



"Ongi Etorri baserrira" ekimena

Urnietako hainbat baserri edizio berrian murgilduko dira, asteburuan / 2-3

ANDOAINGO EUSKARALDIA BATZORDEA IRAILEAN ABIATUKO DA

Parte hartu nahi al duzu?
IDATZIGUZU andoain@euskaraldia.eus e-postara





Zerbitzu ugari eta elkarren artean oso bestelakoak eskaintzen dituzte Goiburuko Basitegi baserrian. AIURRI

“Oiloak dira gure oinarri”

VANESA BARRIUSO BASITEGI

Bizitokia izateaz gain, landa-oiloen hazitegia, zalditegia eta nekazal-etxea da. Asteburu honetan egingo den “Ongi etorri baserrira” ate irekiera jardunaldian hartuko du parte

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Bi mendeko ibilbidea dauka Urnietako Basitegi baserriak. Etxearen lehen eskritura 1816. urtekoa da, hain justu ere. Bada, txokoari bestelako zukua atera nahian, zaharberritu egin zuten Vanesa Barriusok eta bere familiak. Beren bizitokia izateaz gain, landa-oiloen hazitegia, zalditegia eta landa-turismo da Basitegi. Bertako ateak ireki dizkio Aiurriri, izan ere, datorren asteburuan egingo den “Ongi etorri baserrira” proiektuan hartuko du parte, herri-tarrak lehen sektorerara hurbildu asmoz.

Grosekoea sortzez, nola amaitzen du hiritar batek landa-eremuko baserri baten gidari izaten?

Bizitzak izugarrizko itzuliak ematen dituelako. Psikologia ikasi nuen eta giza baliabidetaan egon nintzen praktikan enpresa batean, urtebetez. Ondoren, bost urtez Urbil merkatal zentroan egin nuen lan, mugikorrek saltzen. Baina bizitzaredu hori ez nuela batere gustuko jabetu nintzen. Era berean, gurasoekin batera etxe bat eraikitzeke lur-sail baten bila nenbilen eta, kasualitatez, Basitegi baserriarekin egin genuen topo. Hala, jarraian Euskaber (Eusko Label zigiluko arrautzak eta arrautz ekologikoak) proiektua ezagutu genuen; horrela, baserria erosi eta hiruzpalau urtera, oiloen proiektua jarri genuen martxan.

Hortaz, bizitoki izateaz gain, gauza gehiago ere bada zuretzat Basitegi.

Hala da. Izan ere, lur-sail handiak genituen eta horiek garbitzen joan gara pixkanaka-pixkanaka, etekina ateratzeko asmoz. Txerriak ere izan ditugu; esperientzia ona izan zen, irakaspen handiak atera genituelako, baina izugarrizko lana ematen dute eta ez zuen jarraipenik izan horrek.

"OILORIK GABE, BASITEGIKO EGITASMOA EZ LITZATEKE BIDERAGARRIA"

Era berean, landa-turismoaren obrarekin genbiltzala, nire semeen zaldiak baserrira ekarri genituen (lehenago hipika batean aritzen ziren zaldiekin) baserrira. Hori horrela, lagun baten proposamenez, zaldian aritzeko pista bat egin genuen. Halaber, gure zaldiekin klaseak jasotzen ditu nahi duenak (15-18 zaldi eta poni ditugu, orotara, baita zenbait moxal ere), eta, bestalde, jendeak bere zaldia gurean utzi eta zaindu egiten diogu.

Lehen sektoreari begira lan egiteaz gain, landa-turismoa ere baduzue eskuragarri.

Sei gela eta bi apartamentu ditugu. Gelei dagokionez, sukalde komunitarioa erabiltzeko aukera bermatzen dugu eta bakoitzak hemen inguruko tontor baten izena hartzen du, bertako leihotik ikusten den mendiaren arabera erabakitak.

Zein bezero motek bisitatzen dute Basitegi?

Denetatik. Landa-turismoan, adibidez, atzerriko jende pila hartzen dugu, europarrak, batez ere. Herrialde katalanetatik ere mordoak etortzen dira. Zalditegiari dagokionez, gehienbat, Donostiako edota Tolosaldeko jendea hurbiltzen da, ingurukoa, alegia, baina Urnietakoa, inor gutxi. Urte osoan, klaseak ematen ditugu, eta, udari begira, udaleku itxiak ere badira gurean.

Basitegiaren azpiegitura handiari eusteko, lantalde handia al dago atzean?

Pertsona bana daukat zaldi-klaseak ematen, landa-turismoa garbitzen eta ukuilua zein oiloak zaintzen. Bide horretatik, gora eta behera aritzen naiz ni, han eta hemen, egun osoan eta etxekoek ere laguntzen dute (etxetik kanpo egiten dute lan).

Uztailaren 8an eta 9an Gipuzkoako zein Bizkaiko 30 baserriarrek beren etxeko ateak zabalduko dituzte ukuiluak, baratzak eta landaguneak ezagutzera emateko, “Ongi etorri baserrira” proiektua medio. Tartean, Basitegi.

Parte hartzen dudana lehen aldia da, nahiz eta bisita gidatuak maiz egin izan ditudan, antzerako egitasmoekin. Oraindik ez didate zehaztu zer den egin behar dudana, baina ukuilua ezagutzeko aukera izango du gerturatzen denak, bertan, dituen duda guztiak argitzeaz batera. Horrez gain, bisitaldian zaldi-klaseak ikusteko parada ere izango dugu.

Jakien jatorria berraurkitzeko egitasmoa da “Ongi etorri baserrira”, bai eta mahaiean dastatzen diren elikagaiak ekoizten dituzten baserriarrek ezagutzeko aukera ezin hobea ere. Bide beretik, horrelako proiektuek laguntzen al dute kontsumoaren gaineko kontzientzia pizten?

Izan ditudan antzeko bizipenetan oinarrituta, apur bat, jada, kontzientziatuta dator jendea, normalean, nahiz eta, toki guztietan bezala, badiren eszeptiko batzuk. Azken horiei zer pentsatua eman ohi die bisitaldiak, eta aurrez zituzten zenbait iritzi aldatzen zaizkie.

Kalitatezko arrautzak dituzuela diozu. Zein nolako bizitza dute?

Animalien bizitza ahalik eta onena izatea nahi dugu. Guztira, gutxi gorabehera, 6000 oilo ditugu, eta badira gu baino handiagoak diren ekoizpenak: landa zabalean egoten dira, eta pentsu osasuntsua ematen diegu, arto askorekin. Egun osoan adi egoten gara, edozein ezustekori azkar batean erantzuteko. Basitegiko gainerako zereginak denbora luze eskatzen badigute ere oiloak dira gure oinarri; oilorik gabe, ez guke beste guztia egingo, ez litzateke bideragarria izango.

Ez da, gainera, sasoi erraza izaten ari lehen sektoreko langileentzat.

Oso iluna. Pentsua, baita beste lehengai batzuk ere izugarri ari dira igotzen. Egunez egun egiten dugu lan guk. Nolanahi ere, aurrera begira, tarifak igotzeko beharrean topatzen naiz; bestela, ez zait errentagarria aterako. Oiloei dagokionez, babestuago sentitzen gara, finean, Euskarberren aterkipean gaudelako.

Zailtasunak zailtasun, ba al dauka lehen sektoreak jarraipena eman-gio dion belaunaldi gazteagorik?

Nire kasuan, 40 urte egin berri ditut eta ez dut neure burua premia horretan kokatu, oraindik. Dena dela, arazo hori nabarmena da: normalean, ez familiarik, ez kanpotik, ez dago lekukotza hartzeko prest dagoenik. Gurean, espero dut, hainbeste lan egin ondoren, norbait jarraipena ematea.

Txanponaren beste aldean, indar handia hartu al du azken boladan landa-turismoak?

Etortzen den jendeak lasaitasuna eta gertutasuna bilatzen du. Gurekin hitz egitea dute gustuko, bai eta inguruak ezagutzea ere. Oiloek eta zaldiek bezerekin egoten laguntzen digute, ikusmira sortzen dutelako.

Ahalegina egiten dugu, bezeroek bertako produktua nahiz inguruetako tokiak ezagut ditzaten: Adarrazpi, golf-a, sagardotegiak... Donostiatik harago ere badelako zer ikusi. Ez dugu nahi Basitegi turistei begirako lolkua izatea soilik.

Aukera zabala Basitegin




Basitegi baserriaren kanpoaldea. AIURRI

Baserria Goiburu auzoan kokatzen da Basitegi, herriko menditontor garrantzitsuenen azpian. Baserria izateaz gain, landaturismoa eta zalditegia ere bada. Bestalde, aire librean hazitako oiloak dituzte.



Igerilekua du nekazalturismoaren kanpoaldean. AIURRI

Nekazalturismoa Berdegunez inguratzen den baserria da Basitegi eta egundoko paraje ikusgarriak ditu landetxeak. Atzealdean duen pistinatik, adibidez, Santa Barbara mendia ikus daiteke, besteak beste. Urrutira ere Donostia ikusten da.



Zaldiak dituzte Basitegi baserrian. AIURRI

Zalditegia Zaldiak ere badira Basitegin, ibiltzen ikasi nahi duenak klaseak jaso ditzan, edota inguruetako bidexketatik itzulua eman dezan. Horretarako, pista ere badute, izan ere, lehiaketetan parte hartzen duen jendea ere joaten da bertara entrenatzera.



Eula baserrira egindako bisitaldia, 2015eko edizioan. AIURRI

"Ongi Etorri baserrira" ekimena asteburu honetan

Gipuzkoako eta Bizkaiko hogeita hamar baserrik parte hartuko dute ekimenean, haietako batzuk Urnietakoak

Erredakzioa URNIETA

Hemen da "Ongi etorri baserrira" egitasmoa, zazpigarrenez, herritarrei lehen sektoreragertutzeko ahaleginean. Bizkaiko eta Gipuzkoako 30 baserrik, hain zuzen ere, beren ateak irekiko dituzte asteburu honetan, hilaren 8an eta 9an, ekoizten dituzten produktuen nondik norakoak zehaztasunez bezain hurbiltasunez ezagutzera emateko.

Urnietan, Basitegiz gain, sektoreko beste zenbait eragile ere daude sartuta proposamenean. Dena dela, eskaintzaren arrakasta ikusi besterik ez dago, zeren, Urnietaren kasuan, behintzat, sarrera guztiak agortu baitira.

Egitarau aberatsa

Goiburu auzoan kokatuta, ardiak hezten dituzte eta munduan aski ezaguna den Idiazabalgo gazta egiten dute Adarrazpi gaztain-

degian; hala, ardiei bisita egingo zaie, baita gazta eta mamia nola egiten den ikasi ere. Adierazi dutenez, bazkari-dastaketa egiteko aukera dago, bertakoekin aurrez hitz eginda.

Bide beretik, Eula sagardotegia ere tartean da. Izan ere, Euskal Herriko txokoren batean sagardoak indarra baldin badauka, Buruntzaldea eskualdean da hori. Usurbil, Astigarraga, Hernani Urnietan...Askotariko sagardoa dastatu daiteke herri horietan. Horregatik, Lategi auzoan kokatutako sagarrondoei bisita egiteaz gain, sagardotegia etxekoen eskutik ezagutzeko parada izango dute bertaratzen direnek.

Azkenik, Otazu onddoek ere ikusmira handia sortu dute. Otazu anaiak buru diren familia-empresa da eta Urnietako Agroaldean duten negutegietan shita-ke perretxikoak ekoizten dituzte, Ergoien auzoan.



Urnietako
udala

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



eguzki KOMUNITATEA

EGUZKI ANDOAIN

Eztabaida etsigarria udalbatzan Ottitta-Leitzaran enpresa egitasmoren inguruan

Ekainaren 30ean, Andoaingo Udalaren ohiko bilkuran, eztabaidagai izan zen Ottitta-Leitzaran izeneko enpresak Otietako zentrala izan zen eraikinean sustatzen duen ostalaritza eta jatetxe egitasmoa.

Eguzkiko kideak udalbatzan izan ez bagina ere, interesez jarraitu genuen eztabaida, eta benetan etsigarria izan zela esan behar dugu.

Etsigarria diogu, bertan ez zelako eztabaidatu ea ingurune horrek, bere babes baldintza bereziak kontuan hartuta, halako egitasmo bat behar duen, kokalekua egokia den eta halakoak. Alderdi ezberdinen arteko parte hartzeak, neurri handi batean Udalak halako gaiak nola kudeatu behar dituen eztabaidatzera zuzendu ziren. Soilik, PSE-EE eta EAJ-PNVren gobernantza ereduaren, herritarrekiko eta herri eragileekiko duten jarrera baztertzaileren inguruan eduki zuen interes apur bat eztabaidak.

Gure ustetan, batzar aretoan mahai gaineratu zen gaiaren aurretik, oinarritzko eztabaida eta dagokion erabakiak hartu behar dira, Leitzaran Biotopo Babestua kudeatzeko asmoen, erabileren eta helburuei dagokionean. Eta erabaki

horietan, bailararako naiz bebesgunerako sarrera nagusia Andoainen egonik, zerikusi eta zeresan handia du Andoaingo Udalak.

Irizpide estrategikoen eztabaida eza errepikatzen da.

Gauza da, duela urte t'erdi inguru Tirolina eta Ferrata Bidearen egitasmoarekin gertatu zen bezala, gaiaren muinari ez diote heltzen, orduan mahai gaineratutako eztabaida estrategikoaren ardatzak baztertu eta hauek aztertzeke asmorik gabe jarraitzen baitute.

Eta eztabaida estrategikoak diogunean honelako galdera hauei erantzuteko gai izateko irizpideak argitu eta erabakitzeaz ari gara:

- Non kokatu behar da Leitzaranerako harrera edo/ eta sarrera gunea?
- Zergatik ez Lizarkolan (Leitzaran edo Galgo Paper paper fabrian kokalekuan)?
- Zein helburuei eta beharrei erantzun behar diete gune horretan ezarri beharreko azpiegiturek? Harrera-lekua,

HIZPIDE IZAN ZEN PLENOAN OTIETAKO ZENTRALA ZEGOEN ERAIKINEAN SUSTATU NAHI DEN EGITASMOA

hasialdirako gunea, ostalaritza edo/eta jatetxeak lekua izan behar al dute?

- Jabetza edo/eta jarduera publikoak izan behar al dute?
 - Jabetza edo/eta jarduera publikoa izan gabe erabilera baldintzatuko al zaie?
 - Irisgarritasuna nola bermatuko da?
 - Ibilgailuak nola kudeatuko dira? Sarrera mugatuko al zaie?
 - Bisitari kopuruari muga jarri behar al zaio? Hala bada, irizpideak?
- Bide honetan, Leitzaran Parkearen (Otietak, Olazar eta beste inguru batzuk bere barne hartzen dituen) izendapenak eta arautzeak onurak ekarri behar zituen eta hasieran onartutako arauak eskuan hartuta, ezinezkoa izango litzateke egungo tirolina dagoen lekuan eraikitzea eta, agian, ezta Ottitta-Leitzaran enpresaren egitasmoa gauzatzea ere. Baina, horiek ere onartu orduko aldatzea pentsatu

BABES ETIKETAREN AITZAKIAN, ETEKIN EKONOMIKO EDO POLITIKOA LORTZEA DUTE HELBURU

zuten udal taldeek, baita egin ere.

Ondorioz, egun, Leitzarango balioak mantentzeko, Unanibia tirolina kokatzeko leku egokia ez zela esan genuenean aurreratu bezala, orain diogu egitasmoak ikusiko ditugula bata bestearen atzetik etortzen, eta izango dutela amankomunean gauza bat gutxienez: bat berak ere ez duela edukiko helburu nagusi gisa Leitzarango balioak mantendu edo hobetzea, biotopo izendapenaren helburu nagusia hori izanda ere; alderantziz, Leitzaranen babes etiketaren aitzakiatan, etekin ekonomiko edo politikoak lortzea izango dute helburu.

Ez dugu ahaztu behar, natura ingurune bati, babes izendapen bat ematen zaionean, ingurune hori balio natural interesgarri eta bereizgarri batzuen jabe delako egiten dela eta izendapen horrek, natur balio horiek mantentzen edo hobetzen lagundu behar

HARTZEN ARI DIREN ERABAKIAK EZ DOAZ NATUR BALIOAK MANTENTZEKO NORABIDEAN

dutela. Eta aspaldian Andoaingo Udaletik hartzen ari diren erabakiak ez doaz norabide horretan.

Esanak esan, Eguzkikook ez gara jarduera jakin baten kontra ari, ez tirolina+ ferrata bidearen kasuan, ezta oraingoan ere. Ingurune garrantzitsu eta sentibera baten kontserbazioaren, hala nola, lurraren erabilera egoki eta zehatz baten, alde gaude.

Laburbilduz zera eskatzen dugu:

- Otietako zentrolean aurrera eramane nahi duten egitasmoaren hasierako onarpen hori atzera botatzea edo gutxienez "izoztuta" uztea.
- Leitzaran Biotopo babestuen erabilera, babes neurrien eta kudeaketarako plangintza bat gauzatzea lehen bait lehen.
- Plangintza horren barne, udalerrian parke periurbanoak sortzeko egitasmoa barneratu beharko litzateke.
- Plangintza gauzatu edo indarrean sartu aurretik, sakoneko erabakirik ez hartzea.
- Eta noski, beharrezkoa den erakunde guztien eta batez ere, hala nahi duten herritarren parte hartzea bermatzea.

POSTONTZIA

ELA SINDIKATUA GIPUZKOA

Zahar-egoitzetako langileen elkarretaratzea, hitzarmenaren negoziazioaren blokeoa salatzen

Gipuzkoako Zahar-egoitzetako langileek zirkulazioa blokeatu dute Donostian, eta, ondoren, elkarretaratzea egin dute Adegiren egoitzaren aurrean, hitzarmenaren negoziazioaren blokeoa salatzen. Ekainaren 30ean Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean egindako bileraren eta elkarretaratzearen ondoren, gaur langileek interpelazioa egin diete patronalei. Gogoratu negoziazioan inolako mugimendurik ez badago, langileek beste bi greba-egun egingo dituztela uztailaren 14an eta 15ean.

Maite Peña Foru diputatuaren aurrean salatu zen liburu berdean azaltzen dituzten etorkizuneko egoitzak ez direla inoiz egongo hitzarmen probintzialik gabe. Ez da sinesgarria etorkizuneko egoitza irudikatzea, orainekoak konpontzeko gai ez badira.

Gaurko mobilizazioetan grebalariek mezu argia helarazi diete patronalei: negoziazioa desblokeatzea.

Harrigarria eta antidemokratikoa da ekainaren 13ko negoziazio mahaian bitarteko. Patronalek ADEGIren bozeramailetzaren bitartez esan zuten ez dela negoziatorik izango



ELAk elkarretaratzea egin zuen ekainaren 30ean. ELA

sindikatuak plataformetatik edukiak kendu arte. Negoziario sektorial batean ez da inoiz ikusi patronalek proposamen sindikalei buruzko proposamenik eta baloraziorik egiten ez dutenik.

Guzti honekin argi uzten dute ez dutela ez borondaterik ez interesik hitzarmen sektorialean. Esan dute ez direla bilera gehiagotara joango eta marra gorri beteezinak jarri dituzte.

"GIPUZKOAKO GIZARTEAK EZIN DU XANTAIARIK SUFRITU ENPRESEN ESKUTIK"

Ereduak huts egin du Gipuzkoako zahar-egoitzetan. Enpresek diru publikoa nahi dute, baina ez lan-baldintzen erantzukizuna, eta Gipuzkoako Foru Aldundia, egoera kontrolatzeko gaitasuna izanik, ez da gai hura kontrolatzeko.

Beraz, Aldundiari eskatzen diogu patronalen gaineko erantzukizuna bere gain hartzeko edo, bestela, egoitzen publikazioa planteatzeko. Gipuzkoako gizarteak ezin du xantaiarik sufritu enpresen eskutik.

Horregatik guztiagatik, egoitzetako ELAko langileok borrokan jarraituko dugu, eta greba egingo dugu uztailaren 14an eta 15ean.



Urrats. URRATS

Udako ordutegia, Andoaingo Urrats dendan

Zumea kalean negoziario duen inprimategiak udako ordutegia- ren berri eman du. Astelehene- tik ostiralera, Urrats zabalik izango da 09:30etik 15:00etara. Larunbatetan, berriz, itxita izan- go da.

Herriko merkataritza dinamizatzeko lan deialdia, Urnietan

On Bizi elkartearen enpresen kudeaketan, administrazio publi- koarekin harremanetan eta diru-laguntzen kudeaketan es- perientzia duen pertsona bat bilatzen ari da, lanean aritzeko. Pertsona dinamikoa eta lagun- koia behar dute, lidergorako eta konbentzitzeko gaitasuna duena. Bide horretan, ezinbestekoa da euskara jakitea. Interesa duenak curriculum eta motibazio gu- tuna bidali behar du urnietaon- bizi@gmail.com e-posta helbi- dera.

POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN



Bazkardoko lotunea. AIURRI

N-1 proiektuaren aurkezpenaren harira

Lehenengo astean, N-1eko proiektua aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, horren harira hiru eskaera egin nahi dizkiogu udal gobernari:

- Proiektua herritar guztien eskura jar dezala.
 - Alegazio epea zabaltzeaz dagoen honetan, U dalak bere baliabide teknikoak herritarren zerbitzura jarri ditzala alegazioak egin ahal izateko, honetarako beharrezkoa den prozedura arin bat zehaztuaz.
 - Alegazio epea 30 eguneko izango dela kontuan hartuta, proiektuaren dimentsioa eta aurrean ditugun datak ikusirik, alegazio epea zabaltzeko eskatu diezaiola GFA-ri.
- Eskaera hauek, Alkateari egin genizkion ekainaren 30eko udalbatzan.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiz harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da.
Urnietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalgunetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).
Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

andoaINDARRA
euskaraz



Verdasco sozialista, Lainez alkatea eta Izagirre jeltzalea aurreko asteko plenoan. UDALA

Azken hilabeteotako plenorik luzeena

Etxeberrietako hirigintza asmoak, Otietako zentral zaharraren etorkizuna eta N1 eta A15 arteko lotunea bideratzeko lizitazio lanen inguruan luze eta zabal aritu ziren Udal ordezkariak. Etxeberrietako hainbat auzokide hurbildu ziren plenora, hitza hartzeko

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ia hiru orduko plenoa izan zen ekainekoa, nahiz eta herritarrek soilik haren erdia ikusteko aukera izango duten. Izan ere, alkatearen erabakiz eta datuen babeserako legea argudiotzat harturik, herrikideen interbenzioak ez ziren Andoaingo Udalak

Youtube bidez duen kanaletik zabaldu. Andoaindarrentzat Otietako Leitzaran haranaren sarbidea da, eta bertan dago interpretazio gunea. Errekaren bestaldean dagoen zentral zaharrean aterpea eta jatetxea zabaltzeko proposamenari bide eman zioten, azken plenora. Antza denez, Tolosaldea

Lanbide Heziketa ikastetxearen gidaritzapean garatu den egitasmoa da Ottitta Leitzaran SL baltzu mugatua. Horrela definitzen dute egitasmoa: "Andoaingo Leitzaran landa parkeko esparruan kokatuta dagoen Otietako izeneko eraikinean, aterpetxe eta turismo aktiboko enpresa

bat burutzeko beharrezko izango diren ekipamendu eta zerbitzuetan oinarritzen da". Udal gobernu osatzen duten PSE-EE eta EAJ-PNV egitasmoaren alde agertu ziren, eta EH Bildu eta Podemos-Ahal Dugu oposizioko kideak, aldiz, abstenitu egin ziren. Eztabaida osoa internet bidez ikus daiteke, udalak eskegi duen bideoan. Laburbilduz, egitasmoa gauzatzeko prozedura eta moduetan ikuspegi ezberdinak dituztela azalerazi zen.

Etxeberrietakoen agerpena

Gai-zerrendaren laugarren puntuak honela zioen: "Etxeberrieta, Ama Kandida eta Agirialai eremuetan babes sozialeko etxebizitzak sustatzeko Eusko Jaurlaritzak eta Andoain Udalak sinatu beharreko lankidetzahitzarmena hasierako izaeraz onartzea". Horrek Etxeberrietako auzokideen interesa piztu zuen. Baita haserrea ere. Lankidetzahitzarmena euren bizkar egin dela salatu zuen herrikide batek, eta Udal gobernuaren aldetik eman zen erantzuna bete beharreko prozedura dela hitzarmena hasierako izaeraz onartzea izan zen. Muinean, etxejabeen interesen eta Udalaren asmoen arteko talka dago. Udalak Etxeberrietan etxebizitza sozialak egiteko egitasmoa aurkeztu zuen otsailean. Bitartean, aurreko urteetan eremu hartako etxebizitzaren jabe asko enpresa batekin ingurua biziberritzeko tratutan aritu dira. Jabetza saltzea edota botatzearen truke berri bat eskuratzea zen haietako askoren asmoa. Eztabaida luze baten ondoren, aztergaia mahai gainean geratu zen. Udalak eta auzotarrek bilera egitea adostu zuten. Asteazken arratsaldean izan zen Basteron.

NIRE USTEZ

JON ANDER UBEDA
KAZETARIA

Plenoak eta zuzeneko emisioa

Zeinen gaizki zaharkituko den azken plenoko bideoa. Ikusi ez baduzu, irakurle, aurreratuko dizkizut pasarte zatar batzuk: Verdascok eten egin behar du bere aurkezpenean, herritarrek pleno aretoa uzten duten bitartean. Ordubete dirudien minutua da. Kamera aurrean ageri da lehen planoan, bizi duen deserosotasuna agerian utziz. Aurrerago, Jon Zulueta hitz egiten ari den ia bi minutuetan kamera galdu antzera dabil beste udal ordezkarien lehen planoak agertuz eta une batzuetan pareta huts bat bistaratuz. Ia bi minutuko pasartea da. Erakunde serio batean onartu ezin diren bideo atalak dira. Paradoxikoa da andoaindarren etxean, udaletxean, horrelako eszena zatarrak ikusgai dauden bitartean herritarren adierazpenak eteteko erabakia hartu izana. Eta, era berean, ez ohiko bisitaldi kopuru handia du bideoak. Ziurrenik asko eta asko topatuko ez dutenaren bila dabiltzalako. Zehazki, Etxeberrietako auzokideen hitzartzea. Ez ditu aurkituko agintaldi honetan zehar erabaki berria hartu delako. Idazkariak azaldu zuen arrazoia, plenoan bertan: "Izaera pertsonaleko datuen babeserako arrazoiak medio, eta, Alkateak hala eskatuta, ikusleen parte-hartzeak ematen direnean grabazioa eten egingo da".

Herritarrek egindako ekarpenak ikusi gabe geratu gara herritarrek eta kazetariak. Eta, aldiz, plenoan irudia babestu nahi zaien herritar haien aurpegiak noiznahi ageri dira bideoan. Sei-zazpi etxeberrietar ezagutzeko moduan gaude bideoa ikusiz gero. Irudien erabilera galdetzea zilegi da, baina egun indarrean dagoen prozedura kontraesankorra da. Streamingaren garaian, kazetariok plenora itzuli beharko dugu gertatzen denaren berri emateko.

N-1 eta A-15 lotunearen lizitazioa martxan jarri dute

Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, aurrekontua 75 milioi izango da, gutxi gorabehera

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako Foru Aldundiak lehen mailako agerraldia egin zuen ekainaren 29an, egitasmoak agintarientzat duen garrantziaren seinale. Markel Olano Diputatu Nagusia eta Aintzane Oiartzabal

Bide Azpiegiturako diputatua hedabideen aurrean agertu ziren, Bidegik eraikitze proiektua idazteko lanak lizitatuko dituztela iragartzeko.

Andoaingo azken plenoan iragarpen hau ez zen oharkabean

igaro. EH Bilduk galdera egin zuen agerraldi horren inguruan, prentsa agerraldia andoaindarrei jakinarazi aurretik egin zelako: "Komunikabideen bidez jakin dute herritarrek", salatu zuen Alvarezek. Lainez alkateak Aldundiko agerraldiaren berririk ez zuela adierazi zuen plenoan, "Aldundiari nire desadostasuna agertu diot" erantsiz. Goenaga jeltzaleak garrantzia kendu nahi izan zion agerraldiari, iazko udan Andoainean egin zen aurkezpenari lotuta dagoela adieraziz.



Olano eta Oiartzabal. IREKIA



Pirotekniazko ikuskizunak ehunka ikusle batu zituen astelehen gauean, San Juan jaiei amaiera emateko ekitaldian.

Parte-hartze handia, erasorik gabeko jaietan

Andoaingo Udalak "oso balorazio positiboa" egin du igaro berri diren San Juan jaiei dagokionez. Ohar horretan ez da Jai Batzordean herriko eragileek egindako baloraziorik agertzen. Salkin merkatarien elkartekoa, ordea, bai. Azken hauek ere pozik agertu dira

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

2020an eta 2021ean ez bezala, San Juan jaiak bere horretan ospatu ahal izan dira 2022an. Ezinbestean, aipamena egin behar zion Udalak ditxosozko pandemiari: "Apurka normaltasunera itzultzen ari garen urte honetan, Andoaingo Udalak aparteko ahalegina egin du jaiei begira puntako programazioa antolatzeke, eta emaitza izan da herritarrek modu aktiboan erantzun dutela". Gozategi, Remember Queen eta Puro Relajoren kontzertuak eta haurren dantborrada nabarmendu ditu Udalak. Oharrean aipamenik ez bada ere, bereziki jendetsuak izan ziren astelehen arratsaldeko dantza erakustaldiak eta jaiari amaiera eman zion pirotekniazko kalejira. Goikoplazan gutxitan elkartzen dira ehunka lagun astelehen buruzuri batean.

Jai egitarauan aipatu ez arren, Udalak oharraren azken lerroak

herriko gizarte sare antolatuari eskaini dizkio: "Andoaingo Udalak eskertza adierazi nahi dio udalerriko elkarte-sareari, erabakigarria izan baita kultura, kirol eta aisialdi-jardueren eskaintza zabala sustatzeko. Errekonozimendu berezia egin nahi zaie Jai Batzordeko kideei eta auzoetako Jai Batzordeei".

Udalaren oharrean, merkatarien balorazioa jaso da: "Salkin elkarteak ere oso balorazio positiboa egin duela diote". Egunotako kontsumo maila altua erabili dute argudio gisa. Merkatariek hurrengo edizioetarako jai udalerriko beste eremu batzuetara zabaltzea eskatu dutela jaso du oharrak.

Nahiz eta Salkinena agertu, Udalak ez du bere oharrean Jai Batzordearen baloraziorik jaso. Oharra argitaratu zen egun berean bildu ziren Udala eta herriko eragileak. Jai Batzordean

jaietako xehetasunak hizpide izan zituzten, eta kanpo-ekoizpen handiez baino gehiago, herriko ekimenengan jarri zuten azpimarra. Batek baino gehiagok ekitaldia gauzatzeko duten baliabide eskasia nabarmendu zuen.

Balorazio egunak dira hauek. Egun hauetan oposizioan dagoen EH Bilduk hainbat grafiko zabaldu ditu Andoainen, jaietako hainbat ataletan izan den gehiegizko gastua agerian uzteko.

Erasorik gabeko jaiak

Horrez gain, Udalak poz berezia agertu du Santakruzak bezalaxe, Sanjuanak erasorik gabeko festak izan direlako: "Udaltzaingoak ez du gertakari larrikerik erregistratu, eta ez da aparteko esku-hartzerik burutu behar izan. Eredugarria da eraso sexistarik edo bestelako erasorik gabeko jai-eremua" izatea aurten Andoain.



Ane Jalon Bazkuneko lehendakariak edizio berria aurkeztu zuen. AIURRI

Andoaingo Euskaraldiaren aurkezpena egin zuten Basteron

Irailean abiatuko da batzordea, udazkenera begira ariketa kolektiboa aurrera eramateko

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Andoaingo Udalak egindako ekarpenari esker eta Manuel Larramendi Bazkunaren ekimenari esker, Euskaraldiaren hirugarren edizioa martxan da. Hobe esanda, atariko lanak daude eginda. Irailean martxan jarriko den batzordeak heldu beharko baitio udazkeneko ariketa kolektiboari. Ane Jalonek hitza hartu zuen Basteroko ekitaldian, Andoain herriarentzat euskararen aldeko ekimenak zeinen garrantzitsuak diren azalduz. Ekimenean parte hartzera gonbidatu zituen Basterora hurbildutakoak, eta baita oro har herritarrek ere.

Basterora ordezkariak duten alderdi politiko guztietako ordezkariak hurbildu ziren, eta baita aurreko edizioetan Euskaraldiko batzordekide izandako hainbat lagun ere. Herritar gehiago hurbildu zen Basterora, ekainaren 28an egin zen ekitaldira.

Andoaingo dinamizatzailea

Ainhua Manterola Pavo 21 urteko gaztea izango da edizio berriko dinamizatzailea. Dagoeneko hainbat zeregini ekin dio. Besteak beste, komunikazioaren eta entitateen Euskaraldiko barne dinamikatan murgildu da. Era berean, udazkenera begirako euskarriak lotzen aritu da. Gauzak ondo, irailaren 30ean Euskaraldiaren aurkezpen festa egiteko asmoa dagoela aurreratu zuen.

Euskaraldiaren kantua

Abestia aurkeztu da aste honetan. Xabier Zabalaren musika eta Andoni Egañaren hitzekin sortutako "Esazu hitz bat" abestiari bost abeslarik jarri diote ahotsa: Andoni Egaña hitzen egileak berak, Aiora Renteriak, Pettik, Maddalen Arzallus bertsolari eta kantariak eta Ainhua Larrañaga aktoreak. Bideoklipa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean.



Udal ordezkariak eta herritarrek hurbildu ziren aurkezpen-ekitaldira. AIURRI



Soka dantzan parte hartu zuen Mikel Urdangarin Castro aurtengo "Kandido"k, Urki dantzako eta gainerako auzotarrekin batera. AIURRI

Kaletxikiko jaiak, gogoangarriak

Giro ederrean ospatu ziren Kaletxiki auzoko jaiak. Dena esatera, ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu zuten kaletxikitarrek, auzokoen ez ezik inguruko auzo edo herrietatik hurbildutakoen jai-gogoa asetzeko modukoa

Xabier Lasa ANDOAIN

Ohiko hiru eguneko formatua gainditu, eta lau egunetara luzatu zituzten jaiak. Horrela, San Pedro egunean, bertso jaialdi bikaina antolatu zuten. Plazetan nahiko eskarmentua daukaten Jone Uria, Jon Beloki, Amaia Agirre, Joanes Illarregi Nerea Elustondok osatutako boskoteari, Jon Mendiluze gaztea erantsi zioten. Estreinaldia zen plaza handi batean Aitor Mendiluzeren semearentzat, eta primeran aritu zela aitortu behar da.

Kandido eta bere Txikitxuen eskutik heldu zen asteburu beteko jaia. Eta agudo, kaletxekitarrek kanturako daukaten aparteko zaletasuna erakusteko aukera eduki zuten. Oholtza gainera, honako auzotarrak igo

ziren: Juanita Ikutza, Txitxu Kastro, Bea Zalakain, Margari Bailon, Xabier Arantzeta, Iñaki Irulegi, Eneko Urdangarin, Ane Arantzeta eta Uxue Urruzola. Guztiek ere Estitxu Sistiaga, Ilargi Agirre, Aimar Urruzuno eta Mikel Urdangarin musikariak izan zituzten bidelagun kantuan. Gauean, jende ugari erakartzen duen bakarrikizetalarrien saioak jaietako bigarren estreinaldia ekarri zuen, Juanma Gonzalez andoaindarrarena, hain zuzen.

Asteburuan, jende ugari erakarri zituzten hainbat ekitaldi nabarmentzekoak dira; hala nola, haur eta helduen danborradak, Euskaraldiaren txokoa, sagardo lehiaketa, pilota topaketa, Soka Dantza edo Gora Kaletxiki Bandaren kontzertua.

Esker oneko omenaldi xumeak

Dena ez zen jai giroa eta poza izan, nolanahi ere. Urkoekin esker onekoak direla ere erakutsi zuten kaletxikitarrek, eta horrela, azken aldian auzoan hildako bi pertsona bi pertsonei omenaldi xumea eskaini zitzaizen, auzoan oso maitatuak zirenez. Larunbatean, 2020ko azaroaren 15ean hil zen Jose Antonio Arozena Txena gogoan hartu zuten, eta Nekane Lasa alargunari egin zioten ohorezko dantza. Igandean, berriz, Gora Kaletxiki Bandako kideek ekainaren 28an zendutako Vicente Ibañezen aldeko bertsoak abestu zituzten, kontzertuari ekin aurretik; urtetan Ibañezek Bandari eskainitako laguntza eskertu nahi izan zioten horrela.



Kaletxikin gogoan hartu zuten Jose Antonio Arozena "Txena" auzotarra. AIURRI



Kandido laguntzailez inguratuta jaitsi zen Goikoplazatik Kaletxikira. AIURRI



Udal agintaririk gabe ere, giro ederrean igaro zen Danborrada. AIURRI



Gora Kaletxiki Bandak zenbait ikusle dantzan jartzea lortu zuen. AIURRI



Auzotar askoren lanari esker aurrera ateratzen dira jaiak Kaletxiki auzoan. AIURRI



Gaztañaga izan zen sagardo txapelketako irabazlea. AIURRI



Auzotarrak kantari aritu ziren, ostiral iluntzean. AIURRI



San Pedro egunean bertso-saioa egin zuten Berrozpe etxeko kaperan. AIURRI

San Juan jaiak, Kaletxikiko jaiak Aiurri.eus webgunean



Argazki-bildumak



Bideo sorta zabala



Kronikak, iritzia

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



"Gauza handia da mendeurrenera iristea Euskalduna"

JUAN LUIS ANTON ARAKISTAIN "BIXKAI" EUSKALDUNA KLUBEKO KIDEA

FUTBOLA Euskaldunari lotuta ia 25 urte egin dituela, denboraldiaren amaieran uzteko asmoa agertu die zuzendaritzako kideei. Urtebetez segitzeko eskatu diote, ordea

Xabier Lasa ANDOAIN

Bixkai ezizenez ezagutzen zaituzte herrian. Bizkaitarra zarela badakigu, baina zer gehiago esan dezakezu zeure buruz?

Juan Luis Anton Arakistain dira nire izen-abizenak. Mundu guztiak *Bixkai* gora eta *Bixkai* behera darabil ahotan, eta Euskaldunako zuzendaritzan bertan ere, normalki, kideek fitxa pertsonala ikusten dutenean ikasten dituzte nire izen-abizenak.

Basaurin jaio nintzen, baina gaztetan soldaduska Loiolan eta Irungo Bentaken egin ostean, Gipuzkoan geratu nintzen bizitzeko, anaia Oiartzunen baineukan. Erreterian jarri nintzen bizitzeko, eta bertan jarri zidaten Bixkai ezizena. Touring futbol taldearen Larzabal zelaiko zainzaile gisa sartu nintzen, Koldo Guerrarekin. Han hemen lanean gauza askotan ibilia naiz, eta ostalaritzan murgildu nintzen, Erreteriarako Touring tabernan zein Trintxerpeko bingoan. Zenbait urtetan Lasarte-Orian ere taberna bat ireki nuen.

Andoainera noiz heldu zinen?

Orain 48-50 bat urte. Ezkondu egin nintzen, eta familia eduki, bi seme-alaba. Urte batzuetan, Aritzetako eta Oiartzungo zerbitzuetan lanean aritu nintzen, eta baita Sorabillako Hidroneuma enpresan. Eta, azken urteetan, Euskaldunan. Orain hiru urte hartu nuen erretiroa. **Andoainera heldu, eta Euskalduna futbol taldearekin konpromisoa hartu zenuen, halako batean.**

Bai, eta zuzendaritzako kide gisa 25 urte hurrengo denboraldian beteko ditut. Herrian egin nituen adiskideek animatu nintzen



Bixkai Ubitarte zelaian. **AJURRI**

duen sartzera, eta bertan nabil harrezkero! Zuzendaritza desberdinekin aritu naiz, Eneko Peñalbo, Joxerra Bengoetxea, Jose Angel Huizi eta Salba Parada ezagutuz lehendakari bezala.

Aurtengo denboraldiaren amaieran, kluba uzteko asmoa neukan, baina, azkenean, zuzendaritzako kideek konbentzitu egin naute beste urtebetez jarrai dezadan. Batetik, nire ardura-pekoe eginkizunak egiteko beste pertsona jarriko dutela agindu, eta horri erakusteko eskatu didate; eta, bestetik, gogoratu didate ondo legokeela ni ere eurekin egotea Euskaldunak ehun urte arte ospatzera doan

urtean, 2023an. Egia esan, gauza handia da klub bat mende bateko historiara iristea; ni neu pribilegiatua sentitzen naiz, historia horren laurdena gertu gertutik bizi izanagatik.

Zeintzuk izan dira zure funtzioak Euskaldunan?

Instalakuntzen zainketa, aldagelen ardura, taberna, asteburuko partiden kartel-iragarlea zabaltzea, talde handiaren partidetan delegatua izatea...

Erretiroa orain hiru urte hartu nuenetik jada zenbait arduraz utzita neuzkan, tabernan zerbitzea, esate baterako. Eta, lehen esan bezala, zuzendaritzako kideei aurtengo denboraldi amaieran jakinarazi nien

jada ez nengoela lehengo martxan ibiltzeko. Ictus bat jasanakoa naizela, medikutan nabilela maiz, Euskaldunaren partiduekin sufritzen jarraitzen dudala oraindik, eta ez nagoela txorakerietarako.

Zer esan dezakezu Andoaingo zaleetuei buruz?

Talde handiaren delegatua izatea egokitu zaidan aldetik ez daukat kexatzeko arrazoirik. Harmailetan tarteka zalaparta sortzea, hori futbolaren esentzia da, jendeari pasioak pizten baitizkio. Istiluren bat aipatzekotan, pandemia garaian ikusle batekin edukitako xextra izango litzateke hori: ez zuen musukoa ipini nahi eta ezta harmailetan eseri nahi, eta, beraz, udaltzainei denu behar izan nien.

Egia esan, hotza eta tristea da Ubitarte futbol zelaia berez, eta horrek izugarri baldintzatzen du zaletuaren jarrera. Bi aldetan beirateak ipini dituzte haize korrontetatik babesteko asko ez dela, eta eskerrak horri! Neguari begira, batik bat! Halere, zailagoa dago bestelako hotz motari erremedioa jartzea, zaletuengan animazioaz ari naiz alegia. Urrun geratzen dira jokalaria eta harmailetako zaletuak, eta horrek ez du batere laguntzen animazio giroa sortzeko orduan. Gipuzkoako zelai askotara joaten zaren oharren zara askoz ere animazioa handiagoa izaten dela etxekoan alde.

Bestalde, kanpoko taldeek ere ez dute oso gogoko Ubitartera etortzea; 45 minutuko joko-denboran, normalki, hamar minutu galdu egiten dira baloia zelaitik kanpo irten delako; horrek jokoa etetea dakar maiz, eta taldeek joko-erritmoa galtzea. Etenaldi horiek ekiditeko, talde handiaren partiduetan baloibiltzaileak jartzen ditugu, baina, gainerako mailako partiduetan, ez.

Atletismoko pista ez duzu gogoko...

Uler dezaket bere garaian atletismoko pistak jarri izana, kirol hori sustatzeko. Baina errealtatean ikusi da korrikalariak ez dutela erabiltzen; ikastetxetako ikasleek irakasleekin, salbuespena izan daiteke hori. Eta, bestalde, ez daukat gogoan atletismoko lehiaketaren bat antolatu denik sekula bertan. Ez naiz aditua gai honetan, baina iruditzen zait Udalak hausnartu egin beharko lukeela pisten inguruan.

Jokalarien eboluzioa gertutik bizi izan duzu 25 urtetan.

Prestaketa tekniko eta fisikoari dagokionez, geroz eta gazte teknikoagoak eta azkarragoak datoz. Futbola pittin bat segitzen duen edonork egiazta dezake errealtate hori.

Klubaren egitura ere aldatuz doa.

Antolaketa perfektionatzeko ari da. Orain urte batzuk pentsaezina ematen zuen klubak kirol zuzendari bat, psikologo bat, masajista bat... eduki zezakeenik, eta hara nora iritsi garen!

Nolanahi ere, Euskalduna bezalako klub batek bizirik segi dezan, atzo eta gaur, ezinbestekoa du boluntarioen ahalegina.

Une gozoak zein gaziak biziko zenuen ia 25 urtetan...

Bai, sentimenduz, oso nirea sentitzen dut kluba, eta hortaz, une gozoak zein gaziak kirol emaitzekin identifikatzen ditut, batik bat erregional mailako talde handia igo edo jaitsi izan den okasioekin. Une gazien artean, noski, aparteko kolpe latza izan zen denontzat Iñaki Gurrutxaga zuzendaritzako kidearen heriotza 2021eko irailean.

Dena den, klubari esker egin ditudan adiskideak eta horiekin pasatzen ditudan une gozagarriak azpimarratuko nituzke, beste ezereen gainetik.

Andoainen futbolaren unibertsoan, Bixkai izango da pertsonarik ezagunena.

Hala izatea egokitu zait; pentsa, hamalau talde ditu klubak, eta Ubitarten asteburuko jokatzeko diren partidatan, zenbat jokalaria, tekniko, ikusle, guraso eta abar ez ote diren bilduko bertan. Goiz ala berandu, ia denekin tratua eduki behar! Horrela, normala kontu ezin lagun edukitzea!

Zelaiaren zainketa lanetan nagoela umeak gaiztakeriak egiten edo ateen saretara igotzen sumatu izan ditudanean txilibitua jo izan diet makina bat aldiz. "Hara, *Bixkai*, putasemea!" oihiakutako didate une hartan, baina horietako asko, gero hazten joan diren heinean, lagun egin ditut. **Bizkaitarra izanda, Athletic zalea izateko aukera handiak daukazazu...**

Nire bihotza urdin kolorekoa izango da, betiko. Nolanahi ere, sentimendu zuri-gorria ere ez daukat ahazteko. Bi talde horien ondoren, edozein euskal talderen alde jarriko naiz beti. Ni ez naizu harrapatuko Realak galtzeko desatzen.



Lehia egon badago, hango eta hemengo gaztetxoek arteko lagunarteko txapelketa dela ahaztu gabe. AIURRI

Donosti Cup, lehiatik harago

FUTBOLA Urnietako zein Andoaingo jokalariek parte hartzen ari dira Donosti Cup txapelketan. Orotara 20 herrialdeetatik etorri dira Euskal Herrira, uztailaren 3tik 9ra bitarteko lehiaketan jokatzeko

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Lehiatzeko baino, futbolaz gozatzeko parada ematen du Donosti Cup futbol-txapelketak. Hiru hamarkada bete ditu aurren eta, ibilbide luze horren arrakastaren erakusle, emaitza ezin hobeak lortu ditu aurtengo edizioak. Izan ere, antolatzaileek adierazi bezala, 20 herrialdeetako 760 taldek baieztatu dute beren parte-hartzea txapelketan, azken edizioan (2019) baino 100 talde gehiagok, hain justu ere. Uztailaren 3an hasi eta, larunbat honetan, hilaren 9an emango zaio amaiera nazioartean sona hartu duen txapelketari.

Mundu osoko gaztetxoak, Euskal Herrian
Ezer berezia badakar lehiaketak munduko edozein txokotako jendearekin jokatzeko aukera da hori. 25 minutuko bi zatitan banatutako norgehiagokan, hiz-

kuntza, kultura eta ohitura nahasketa ematen da joko-zelaian, futboleko aritzeko gogoia oinarri. Txile, Japonia edo Kongoko Errepublikak bezalako herrialde urrunetatik iritsi dira jokalariek. Amerikako Estatu Batuak izan da, hirugarrenez, atzerrikik talde gehien ekarri dituen herrialdea, 80, zehatz-mehatz. Bestalde, Donosti Cup-eko kideek adierazi legez, Frantziak (40 talde) eta Mexikok (12 talde) ere errepresentazio handia dute aurren. Baina ez dira horiek bakarrik egongo, honako toki hauetatik ere hurbildu baitira Euskal Herrira futbolaz gozatzeko: besteak

760 TALDE LEHIATZEN ARI DIRA DONOSTI CUP TXAPELKETAN, 2019AN BAINO 100 TALDE GEHIAGO DIRA

beste, Andorra, Italia, Portugal, Suitza, Belgika, Erresuma Batua, Suedia, Txile, Bolivia, El Salvador, Honduras, Libano, Palestina, Japonia... Talde aipagarriak izango dira tartean, hots, federatutako futboleko itzal handia duten klubak, hala nola, Olympique Lyon, emakumezkoen Txapeldunen Ligako txapeldun berria.
Hori horrela, Donostia inguruetako futbol-zelaietan hamaika partaide ari dira jokoan egunotan, Urnietan nahiz Andoaingen. Era berean, bi herrietako futbolzaleak ere parte hartzen ari dira.

URNIETAKO ETA ANDOAINGO FUTBOL ZELAIETAN HAINBAT PARTIDA JOKATZEN ARI DIRA EGUNOTAN

Euskalduna Donosti Cup txapelketan



Euskaldunako neskak, lehia abiatzeaz zenean. EUSKALDUNA

Gozatzeko prest Euskalduna klubeko hainbat talde Donosti Cup txapelketan parte hartzen ari dira. Gainerakoek bezala, Anoeta estadioan akreditazioa lortu zuten. Eta, hortik aurrera, gozatzeraz.



Lagunarteko giroa nagusitu zen Ubitarteko egonaldian. EUSKALDUNA

Japoniarren bisitaldia Amanecer CF taldea Japoniatik ailegatu da Gipuzkoara, lehiari parte hartzeraz. Txapelketa hasi baino egun batzuk lehenago iritsi ziren, eta Ubitarten jokatzeko aritu ziren.



RTVE

Tourra, Aiurri.eus gunean

TXIRRINDULARITZA Lehen egunetan erakustaldi ederra eman du Jumbo Visma taldeko Van Aert flandestarrak. Asteartean liderraren maillot horia jantzita zuela, erakustaldi bikaina eman zuen. Txikitu egin zuen tropela helmugatik 10 kilometrora zegoen muinoan. Andoni Urbistondo itzuli handiaren kronika egiten ari da egunero-egunero, Aiurri.eus gunean.



JESÚS GARCÍA CASTELO

Esnaolaren garaipena Jaenen

ATLETISMOA Urnietarrak Andaluziako Jaen hiriburuan antolatu zen elkartasuneko maratokia irabazi zuen. Udalarena den pistan burutu zen maratoki osoa. 400 metroko pistari bueltaka ibili ziren, beraz. Herrialdeko atletismo taldeak antolatuta, maratokia Asperger TEA elkartearen aldeko lasterketa izan zen.

Bertso pilota jaialdia Urnietako Udal pilotalekuan

Pagola eta Mujika bertsolariek eta Goñi eta Odriozola pilotariek parte hartu zuten, besteak beste

Erredakzioa URNIETA Joan den ostiralean, hilaren lehenean, Urnietako udal pilotalekuan, giro polita izan zen herriko gazte talde batek antolatutako Bertso-Pilota jaialdian. Guztira, 180-200 ikusle hurbildu

ziren, Urnietako eta pilota-eskolako haurrak barne. Hasteko, Peio Martin herriki-deak, ume zenean pilota-eskolako kide izandakoak, hitza hartu zuen lau pilotarien aurkezpena egiteko. Ondoren, Eli



Pala txapelketa. AIURRI

Goiburuko pala txapelketa hilaren 18an abiatuko da

PALA Patidak astean zehar jokatu dira Goiburuko frontoian, astelehenetik ostegunera

Erredakzioa ANDOAIN Uztailaren 18an hasiko da laugarren Goiburuko pala txapelketa. Bikoteka jokatzeko eta gutxienez partaidetako batek Andoaingoa behar du izan. Teniseko pilotarekin jokatzeko den txapelketa da, dena esatera. Giro polita sortzen da Goiburun eta interesa dutenek igandera bitarteko epea dute izena emateko. Horretarako 615 72 65 82 telefono zenbakira mezua idatzi behar da. Partidak astean zehar jokatu dira, astelehenetik ostegunera bitarte. Bikoteko 20 euro ordaintzen dira eta kamiseta opari jaostzen dute. Finala abuztuaren 7an jokatu da.

Pagola eta Andoni Mujika "Anatx" bertsolari gazteen txanda izan zen, bertso pare banarekin. Partidari dagokionez, Mikel Goñi eta Imanol Odriozola urnietarrak Donostiako Iker Urmeneta eta Mikel Aranguren izan zituzten aurkari eta norgehiagoka parekatua ikusi ahal izan zuen jendeak 16. tantora bitarte. Hortik aurrera, donostiarrak gailendu ziren 22-17ko emaitzaz. Goñik akats adina tanto eder burutu zituen; Odrio-



Pilotariak babeslearen etxean izan ziren txapelketaren aurkezpenean. ORIAMENDI

Aldabe-Barrenetxea, bitik bi garaipen San Fermin txapelketan

ERREMONTEA Lehen bi jardunaldiak igarota, bi garaipen eskuratu dituen bikote bakarra da

Erredakzioa URNIETA Lehen bi jardunaldiak igarota emozioa hirugarren partidano dago. Ostegun honetan, Ansa finalera sailkatzen saiatuko da.

Ekainak 27, astelehena

1. jardunaldia:	
Aldabe-Barrenetxea IV	30
Urriza Labaka	23
Ezkurra II-Juanenea	30
Ansa II-Azpiroz	25

Uztailak 4, astelehena.

2. jardunaldia:	
Aldabe-Barrenetxea IV	30
Ezkurra II-Juanenea	17
Ansa II-Azpiroz	30
Urriza-Labaka	23

Sailkapena, lehen bi jardunaldiak igarota:

1. Aldabe-Barrenetxea IV	8 p.
2. Ansa II-Azpiroz	5 p.
3. Ezkurra II-Juanenea	4 p.
4. Urriza-Larrañaga	0 p.

Uztailak 7, osteguna. 3. jardunaldia. 16:30: Urriza-Labaka Ezkurra II-Juanenea Aldabe-Barrenetxea IV Ansa II-Azpiroz

Aldabe-Barrenetxea bikoteak dagoeneko finalaurrekoa jokatzeke sailkapena eskuratu du. Baina, adi, zeren eta ligaxkako txapeldunak finala jokatu baiduke zuzenean. Gaurkoz Ansa II-Azpiroz dira finalerako hautagaiak, eta Urriza-Labaka bikotea finalerako kanpo geratzear daude. Hirugarren jardunaldian geratu dira finalaurrekoak erabakita.

Finalaurrekoa, uztailaren 9an; finala, uztailaren 15ean Finalaurrekoa larunbat honetan izango da eta finala uztailaren 15ean. Txapela jokoan izango da arratsaldeko 18:00tan hasita.



Mikel Goñi pilotaria. AIURRI

zolak, berriz, pilotakada bikainak jo zituen, baina Urmeneta eta Aranguren pilotak gutxiago galdu eta, ondorioz, merezitako garaipena lortu zuten. Tanto bitarteko atsedendietan, bertsolariek bere lana gauzatu zuten, baita eta partida amaieran ere agurra abestu. Sarien zozketa falta zen eta hori ere Peio Martinek gidatu zuen, pilota-eskolako haurren laguntzaz, eurak izan baitziren poltsatik zenbakiak atera zituztenak.



Gabirondo lanean, joan zen igandean. HERRIKIROLFEDERAZIOA

Txapela berria jantzi du Gabirondo urnietarrak

SEGA Urnietarrak lortu duen laugarren txapela da. Ibilbide oparoa osatzen ari da, urtez urte

Erredakzioa URNIETA

Aurreko igandean, Asteasuko Sanpedroetako azken jai-egunarekin bat eginez, Gipuzkoako ohiko sega txapelketa ospatu zen Bulano baserriko belazeetan, eta, bertan, Julen Gabirondo urnietarrak txapel berria eskuratu zuen. Laugarrena du, honenezkero. Gipuzkoako Herri

Kirol Federazioak antolatu zuen finala, eta honakoa sailkapena:

1. Julen Gabirondo 3.076 kg.
2. Jon Otegi 2.916,50 kg.
3. Iban Pardo 2.904,50 kg.
4. Mikel Lizartza 2.636 kg.

Igande honetan, arratsaldeko 18:00tan hasita, Gipuzkoako abiadura txapelketa jokatu da Zizurkilgo Nekola baserrian.



Aurtengo Gipuzkoako txapelketako podiuma. HERRIKIROLFEDERAZIOA

Kirol jarduerak gertutik ezagutzeko aukera

Urnietako Udal Kiroldegian ate irekiera jardunaldiak antolatu dituzte, uztailaren 11n hasita

Erredakzioa URNIETA

Datorren ikasturteari begirako ate irekiera izango da Urnietako Udal Kiroldegian, hainbat jarduera probatzeko eta, aldi berean, instalazio berriak ezagutzeko. Aurrez izena ematea ezinbestekoa izango da kiroldegiko sarreran bertan.

Ate irekiera, lehen hitzorduak

- Gimnasia funtzionala: uztailak 11 (09:00) eta 13 (19:00).
- Total training: uztailak 11 (19:00) eta 13 (09:00).
- Defentsa pertsonala: uztailak 12 (09:00) eta 14 (19:00).
- GAP-Hipopresiboak: uztailak 12 (19:00) eta 14 (09:00).
- Cardioboxing: uztailak 15 (09:00) eta 19:00).
- Bodepump: uztailak 18 (09:00) eta 19 (19:00).
- Spinning: uztailak 18 (19:00) eta 19 (09:00).
- Tonifikazioa: uztailak 20 (09:00) eta 19:00).
- Pilates: uztailak 21 (09:00) eta 19:00) eta 27 (19:00).
- Stretching: uztailak 27 (19:00).
- Yoga: uztailak 29 (09:00).
- Yoga aurreratua: uztailak 29 (11:00).
- Yoga terapeutikoa: uztailak 29 (20:00).
- Meditazioa: uztailak 29 (19:00).



AIURRI

Txapelketa, azken txanpan

PILOTA Lagunarteko eskuz binakako txapelketa jokatzen ari dira Goiburuko pilotalekuan, Andoaingo Gaztetxeak antolatuta. Asteazken arratsaldean finalaurreko partidak jokatzen ziren, iluntzean hasita. Ostiral honetan amaituko da txapelketa, gaueko 22:00tan hasita. Bi partida jokatu dira: 3-4. postuak eta finala.



EUSKADIKOEUSKALPILOTA FEDERAKUNTZA

Txapel berria buruan

PILOTA Zaramaga eta Berria txapelketako irabazi eta gero, beste txapel bana eskuratu dute Olatz Arrizabalaga gernikarrak eta Nora Mendizabal andoaindarrak osatutako bikoteak. Azkena, aurreko asteburuan. Euskal Herriko elite mailako txapeldun bilakatu ziren, Etxegarai eta Gaminde bikotea aise irabazita (22-8).

FINALAURREA

UZTAILAK 9 LARUNBATA / 16:30ETATIK AUERRERA
GALARRETA JAI ALAI (HERNANI)

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 7

ANDOAIN Zinema kalean
"Space Jam, aro berria". Gazte
Lokalak antolatuta.
19:00, Goikoplaza. Dohainik.

LARUNBATA 9

ANDOAIN Antzerkia
"Bidearen amaieran" kale antzerkia,
Hortzmuga konpainiaren eskutik.
Egun batetik bestera Pedrin
bizilagunen aurrean Divina Pedrea
bilakatuta agertuko da.
20:00, Goikoplaza. Dohainik.

ASTEAZKENA 13

ANDOAIN Zinema kalean
"Raya el ultimo dragon". Gazte
Lokalak antolatuta.
19:00, Etxeberrieta. Dohainik.

OSTEGUNA 14

ANDOAIN Kontzertua
"Limonos de oro" biraren barnean,
Izarok emanaldi akustikoa eskainiko
du Otietan. Emanaldia ikusteko
gonbidapena behar da, baina azkar
batean agortu ziren sarrera guztiak.
19:00 Otietan. Dohainik.

OSTIRALA 15

URNIETA Lehiaketa
Lehen eskultura lehiaketa martxan
dago, eta izen-ematea aurki
amaituko da. Lehiaketaren gaia
"Emakumeei aitortza zaintzen
eremuan egindako lanarengatik"
da. Oinarriak Urnieta.eus gunean
aurki daitezke.
Azken eguna: Uztailak 15.

LARUNBATA 16

ANDOAIN Antzerkia
Kale antzerkia, Barsanti &
Mamacrea konpainiaren eskutik.
Suizidioa da, zoramenarekin batera,
gizartean dagoen tabu handienetako
bat. Kalegiroan zikloaren baitan
antolatutako emanaldia.
20:00, Goikoplaza. Dohainik.



Karrikako jaien hasiera, 2019an. AIURRI

ANDOAIN Karrikako jaiak

Ostiralean hasi eta igandera bitarte luzatzen ziren jaiak Karrikan. Aurtengoan
egun bakarrera mugatu dute festa. Egitaraua: 11:00 Puzgarriak eta apar
festa. Bainujantzia eta txankletak eramateko deialdia egin diete haurrei;
12:00 Sagardo txapelketa; 12:00 Euskaraldiaren txokoa; 13:00 Paella
txapelketa; 14:30 Herri bazkaria; 17:00 Puzgarriak; 20:00 Danborrada;
21:30 Danborradako afaria; 23:00 Poteoa Joselontxo's txarangak lagunduta.
Uztailak 9, larunbata. Egun osoan zehar Karrika auzoan.



Puzgarriak izango dira, goizez eta arratsalde. AIURRI



Danborrada larunbat iluntzean abiatuko da, auzotik bertatik. AIURRI

ZINEMA



ANDOAIN


ZINEMA KALEAN

SPACE JAM,
aro berria
Uztailak 7,
osteguna.
19:00.
Goikoplaza.

ANDOAIN

ZINEMA KALEAN

RAYA,
el ultimo dragon
Uztailak 13,
asteazkena.
19:00.
Etxeberrieta plaza.



SINOPSISIA



RAYA Y EL ÚLTIMO DRAGÓN

Zuzendariak: Don Hall, Carlos López Estrada, Paul Briggs, John
Ripa. **Herrialdea:** AEB. **Generoa:** Fantasia, marrazki bizidunak.
Iraupena: 114 minutu. **Ekoizena:** Walt Disney. **Musika:** James
Newton Howard. **Urtea:** 2021.

Maila handiko filma

Raya gerlari bakartiak azken
dragoia aurkitu beharko du
suntsitutako mundu bat
berreraikitzeke eta bere herria
berriro batzeko. Kumandraren
mundu fantastikoan, gizakiak

eta dragoiak elkarrekin bizi
izan ziren aspaldian, harmonia
betea. Baina hori hautsi egin
zen eta neskata ausarta
abentura ederrean murgilduko
da.





GUREESKU

Piriniotako Bidea

"Gure etorkizuna libre erabaki nahi dugu, eta horretarako, bidea argizatzen eta urratzen jarraituko dugu!" adieraziz, Gure Esku mugimenduak Euskal Herrian barrena ehunka mendi argiztatu zituen aurreko asteburuan. Andoaindik eta Urnietatik hainbat lagun abiatu ziren Oiartzun aldeko mendiak argitzeko.



GUREESKU



GAZTETXEA

Artisautza azoka

Bigarren azoka alternatiboa antolatu zuten, Andoaingo Gaztetxean. Askotariko artistek parte hartu zuten ekimenean. Goizean zehar Goiatz Salbador Andoaingo kantariak emanaldia eskaini zuen. Eguraldi ona baliatuta, ekitaldia Gaztetxearen kanpoaldean egin zuten. Artisautza produktuak ikusi edota erosteko aukera izan zuten bisitariek.

Drag Showa Gaztetxean

Albina Stardust eta Divina Comedia "Drag Queen"-ak Andoaingo gaztetxean izan ziren, aurreko ostiralean. Gaualdiak musika emanaldiarekin jarraitu zuen. Antolatzailea Traka Andoaingo gazte feministen taldea izan zen. Ikuskizuna hasi aurretik Buruntzaldeko topaketa feministen aurkezpena eta luntxa egin zuten.



TRAKA

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Aiert ugarte
Uztailaren 14an 4 urte beteko dituzu bihotza, jarraitu irribarreak ateratzen. ZORIONAK eta muxu erraldoi bat etxekoan partetik.

Urte askotarako

www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
Whatsapp bidez: 619 16 35 97
diseinua@aiurri.eus
Arantzibia 4-5, behea Andoain
Telefonoa: 943 300 732

MERKATU-TXIKIA

IRAKASKUNTZA

Ingelesko klase partikularrak ematen dituen norbait behar dut 9-11 urte bitarteko haurrei irailetik aurrera eskolak etxean emateko. Informazio gehiago: **650 34 11 08** telefonoan.

TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnietak: 943 006 680.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

IKUSBERA

Udako Ikusbera aldizkaria

Aiurriko harpidedunek zenbaki berria buzoian jasoko dute!





**Mendira,
hondartzara,
festara...
Uda honetan
ere zurekin
eramango
gaituzu**

